

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

9/2023 Foru Araua, martxoaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialari behin betiko onespena emateko

Arabako Batzar Nagusiek, 2023ko martxoaren 8an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

9/2023 Foru Araua, martxoaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialari behin betiko onespena emateko.

ZIOEN ADIERAZPENA

Arabako Lurralde Historikoak eskumena du errepideak eta bideak planifikatu, eraiki, konserbatu, aldatu, finantzatu, erabili eta ustiatzeko, bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.34 artikuluan eta autonomia erkidego osorako erakundeen eta lurralde historikoe-tako foru organoen arteko harremanei buruzko 27/1983 Legearen 7.a.8 artikuluan jasorikorekin. Eskumen hori aplikatuz, bizikleta bidearen kontzeptua eta ibilbide berdearen kontzeptua aitortzen dituzten bi esparru juridiko definitu dira, Arabako Batzar Nagusiek Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzko martxoaren 8ko 4/2010 Foru Araua eta Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzko 1/2012 Foru Araua onestearen bidez.

Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektoriala onetsita, Bizikleta Bideei buruzko 4/2010 Foru Arauaren lehenengo xedapen gehigarriaren agin-dua betetzen da. Horren arabera, Arabako Foru Aldundiak bizikleta bideen eta ibilbide berdeen araudia jasotzen duen lurralde plan sektorialaren proiektu bat egin eta Batzar Nagusiei aurkeztu behar die, onets dezaten. Aurreko horrekin bat etorritik, Ibilbide Berdeei buruzko 1/2012 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarrian zehaztuta dago foru aldundiak Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren proiektua egin behar duela, bi gaien araudia jasoko duena, eta Batzar Nagusiei aurkeztu, onets dezaten.

Lurralde Plan Sektoriala onesteko prozeduran, ebazpen hauek eman dira, prozeduraren faseak betetz:

Diputatuen Kontseiluaren 475/2014 Erabakia, irailaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektoriala idazteari hasiera ematea onesten duena.

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 137/2016 Foru Agindua, ekainaren 2koa, Arabako Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Arloko Lurralde Planaren aurrerapena lurraldeko administrazio publikoei bidali eta bi hilabeteko epea ezartzekoa, oharrak, iradokizunak, aukerak eta proposamenak egin ditzaten.

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 130/2019 Foru Agindua, maiatzaren 24koa, hasierako onspena ematen diona Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialari eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa jendaurrean jartzeko izapidea egiteari.

Ezarritako prozedura betez, iragarki bana argitaratu ziren Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean, eta entzunaldia ireki zitzaien lurralde administrazio publiko interesdun guztiei, jendaurrean jartzeko aldiarekin batera, egoki iritzitako oharrak eta iradokizunak egin zitzaten bi hilabeteko epean.

243/2020 Foru Agindua, urriaren 14koa, ebazten dituen hasierako onespena jaso duen Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektoriala jendaurrean egon den bitartean eta entzunaldian aurkeztutako alegazioak.

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 102/2021 Foru Agindua, maiatzaren 3koa, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egiten duena.

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 348/2021 Foru Agindua, abenduaren 28koa, behin-behineko onespena ematen diona Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen (EAELAB) nahitaezko txostena eskatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen Osoko Bilkurak, 2022ko otsailaren 9an egindako 1/2022 bilkuran, aho batez erabaki zuen, kideen gehiengo osoz, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektoriala behin-behinean onesteko dokumentuaren aldeko txostena egitea, alderdi lotesleei dagokienez, bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legearen 13.8 artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian adierazitakoarekin.

Prozesu osoan zehar, kontsulta izapideez, administrazioen entzunaldiaz eta jendaurrean jartzeaz gain, parte hartze publikoaren prozesuko ekintzak gauzatu dira ondoz ondoko faseetan. Honako hauek nabarmentzen dira:

– Prozesuan sortu den dokumentazio tekniko guztia www.pts-vciv.com web orri sortu berrian argitaratu da, interesa duen edonork kontsultatu eta aztertu ahal izan dezan.

– Zazpi informazio saio egin ziren kuadrilla, udal eta administrazio batzarrentzat, bat kuadrilla bakoitzeko, Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapena aurkezteko, 2016ko apirilean eta maiatzean.

– Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapenaren gainekoak azaldu ziren Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen Kontseiluan, 2016ko apirilaren 11n, eta Arabako Bizikletaren Kontseiluan, 2016ko maiatzaren 9an.

– Informazio saio ireki bat egin zen 2022ko ekainaren 2an, Gasteizen, Lurralde Plan Sektorialaren edukia eta irismena azaltzeko.

– Arabako Bizikletaren Kontseiluari erakutsi zitzaion, 2022ko ekainaren 6ko saioan, bai eta Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen Kontseiluari ere, 2022ko ekainaren 15eko saioan.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat etorri izapidetu da.

Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 6.1.1.1 artikuluan xedatutakoa aztertu da.

Artikulu bakarra

Behin betiko onestea Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektoriala.

Azken xedapena

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 27a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA